

## ILUNTZAR 726m



Iluntzar edo Ilunzar mendia Aulesti, Nabarniz eta Gisaburuagatik igo daiteke. Gaur egun oraindik Bizkaiko herri txiki horiek industrializazioaren ondorioak jasan gabe jarraitzen dute, hala ere, egurgintzaren sektorea bere pisua daukala ikus daiteke, izan ere, ingurua Pinu landaketaz josia dagoela ikus daiteke.

Iluntzar Leia mendilerroko tontorrik garaiena da. Parez pare, Aulesti herria zeharkatzen duen ibarraren beste aldean, garaiera antzekoa duen Bedartzandi tontorra dauka. Bi tontor horiek guztiz aproposak eguraldi onarekin itsasoa eta urruneko mendiez gozatzeko, izan ere, goialdeko begetazio ezak ikuspegi ederraz gozatzeko beta ematen du.

Ezaguna da Iluntzarretik mendebalderako norabidean parez pare dagoen Arrola tontorraren kastroa. Burdin Aroko (K.A III.mendea) herri harresitua hain zuzen ere. Azken urteetako ikerketen arabera Iluntzar tontorrean ere erromatarren gotorlekua izandako kanpamendu militarra zegoen.

### **IBILALDIAREN XEHETASUNAK:**


Ibilbidea egiteko ibilbide orria edota ahal izanez gero GPSa eramatea gomendatzen dizuegu. Izan ere, aintzinako ibilbide markatu bat da baina gaur egun ez dago homologatuta eta puntu leku batzuetan ez dago bat ere ondo seinalatuta.

Garaur eta Solagurenera doan errepidea hartuko dugu. Marka horiak eta zuriak jarraituz gorantz egingo dugu "Ilunzar eta Koba" jartzen duen bidegurutze arte. Bertan kobako norabidea hartuko dugu, momentu ona izango da ordekan indarrak berreskuratzeko. 10 minututan behetik datorren pistarekin bat egingo dugu, momentu horretan gorantzako norabidea hartuko dugu markatuta dauden marka urdinak eta zuriak jarraituz. Abereen askara heldutakoan belardi zabal batetik gorantz jarraituko dugu tontorrera heldu arte. Jaitsiera igo dugun leku beretik egingo dugu Beheko aldean ibilbide orria daukazue.

### INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- **Luzeera:** 10,3 km.
- **Iraupena:** 5 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 750 m.
- **Zailtasun teknikoa:** erdikoa. Ibilbide orria edo GPSa eramatea gomendagarria.
- **Zailtasun fisikoa:** erdiko-altua txikien kategoriakoentzat.

### IBILBIDEAREN IRUDIAK:



### IBILBIDE ORRIA

<b>Irteera:</b> Iluntzar.	<b>Mendilerroa:</b> Leia	<b>Data:</b>
---------------------------	--------------------------	--------------

	<b>Lekua</b>	<b>Norabidea</b>	<b>Deskribapena</b>
<b>1</b>	BBK Aulesti	N300E	BBKtik irten errepide nagusia zeharkatui eta aurrez aurre etxean artean daukagun errepidetik gora egingo dugu.
<b>2</b>	Bidegurutzea	N070E	Haitz handi izena daukan etxean hormigoizko bidetik zuzen gora egingo dugu.
<b>3</b>	Bidegurutzea	N300E	Hormigoizko pistatik gora ezkerre dagoen bihurtune batean bidegurutzea izango dugu. Ezkerreko bidea hartuko dugu marka horiak eta zuriak jarraituz.
<b>4</b>	Bidegurutzea	N080E	Eskumara doan bihurtunean eskumara doan harrizko pista hartuko dugu.
<b>5</b>	Bidegurutzea	N040E	Baserri batera helduko gara, hormigoizko pista utzi eta lurrezko bidea hartuko dugu.
<b>6</b>	Bidegurutzea seinale bertikalarekin	N040E	Bide erdian topatuko dugu hesia pasatu eta jarraian seinale bertikalera helduko gara. Iluntzar eta koba jartzen duen norabidea hartu.
<b>7</b>	Bidegurutzea	N110E	Aurreko puntutik metro gutxira desbideratu gabe zuzen jarraitu marka zuriak eta horiak jarraituz.
<b>8</b>	Seinale bertikala	N040E	Puntu honetan kontuz. Seinale bertikalean ezkerretara joateko Iluntzar jartzen du baina guk aurrera jarraituko dugu "koba" jartzen duen norabidean. Leku horretatik iguera ez dago ondo markatuta eta.
<b>9</b>	Bidegurutzea pista	N240E	Pinuditik ordekan joan eta gero jausita dagoen etxea batean pistarekin konektatuko dugu. Jaitsieran puntu honetaz gogoratzea oso garrantzitsua izango da.
<b>10</b>	Bidegurutzea	N270E	Aurreko puntutik gora egin eta gero bide nagusitik irten eta ezkerre dagoen pista batetik joan beharko gara, oraingoan marka urdinak eta zuriak jarraituko ditugu.

<b>11</b>	Bidegurutzea	N210E	Pistatik goiko aldera heltzen garenean eskuman bidezidor bat ikusiko dugu. Marka urdinak eta zuriak jarraituz gora artadi polit batetik egingo dugu.
<b>12</b>	Bidegurutzea	N270E	Artaditik irtetzean landa txiki batean seinale bertikala ikusiko dugu. Ilunzar jartzen duen norabidea hartu.
<b>13</b>	Abereentzako aska	N250E	Aurreko puntutik metro gutxitara abereek ura edateko eginda dagoen putzu batera helduko gara. Ezkerretara bidezidor bat ikusiko dugu, bide hori jarraituz tontorrera helduko gara.
<b>14</b>	Tontorra	N150E	Etorri garen lekutik jaitsiko dugu. Zuhur ibili bueltan 9. puntura heltzen garenean.